



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baitu Jainkoak erruki izango”

2023ko urtarrilaren 29a
Urteko 4. igandea (A)

Mateo 5, 1-12.

Jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak hurbildu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzairen irakasten:

“Zorionekoak bihotzez behartu direnak, haiek baitute Jainkoa errege.

“Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko.

“Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitz emandako lurraz.

“Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko.

“Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.

“Zorionekoak bihotz garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.

“Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzen hartuko.

“Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege.

“Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztenean, erasoka eta gezurrez gaizki-esaka erabiliko zaituztenean. Poz zaitzte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan.

Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.

EBANJELIO IZAERAGOKO ELIZA

Jose Antonio Pagola

Zoriontasunak formulatzean, Mateok, Lukasek ez bezala, kezka handia izan du Jesusen jarraitzaileak izan beharko lituzkeen ezaugarriak marrazteko. Horra zergatik diren garrantzizkoak guretzat, Elizak, gizarte sekularatu honen baitan egoteko, kristau-molde bat bilatzen jardun behar duen aldi honetan.

Ezin da proposatu Jesusen Berri Ona nolana. Ebanjelio-jarrera biziz bakarrik zabal daiteke Ebanjelioa. Elizaren jardura arnastu beharko lukeen espirtua adierazten digute zoriontasunek, Aitaganantz erromes doan bitartean. Bakoitzaren eta elkartearen konbertsio-jarreraz entzun beharko genituzke. Horrela bakarrik egiten ahal dugu etorkizunerako bidea.

Zorionekoa Eliza, «**espirituz pobre**» eta bihotzez xume dena, handi-mandi eta harro izan gabe diharduena, aberastasunik eta eder-minik gabe, makulu bakarra Jesusen aginte apala duelarik. Harena da Jainkoaren erreinua.

Zorionekoa Eliza, negar dagitenekin «**negar**» egiten duena, eta pribilegioak eta boterea kendu dizkiotelako sufritzen duena; hobeto partekatu ahal izango baitu galtzaileen zoria, baita Jesusena ere. Egun batean Jainkoak kontsolatuko du.

Zorionekoa Eliza, bere mezua indarrez, bortxaz edo zapalketaz ezartzeari uko egiten diona, beti bere Maisu eta Jaunaren otzantasuna praktikatu. Egun batean hitzemandako lurraldea heredatuko du.

Zorionekoa Eliza, «**zuzentasunaren gose-egarri dena**», bai bere baitan bai mundu osoan, zeren bere konbertsio bila ibiliko baita eta guztientzat bizitza zuzenagoa eta duinagoa nola egin bila, azkenak direnengandik hasita. Jainkoak aseko du haren desioa.

Zorionekoa Eliza errukibera, zorrozkeriari uko egin eta oparien aldean errukia gogokoago duena, zeren onartu egingo baititu bekatariek eta ez die ezkutatuko Jesusen Berri Ona. Errukia iritsiko du Jainkoagandik.

Zorionekoa Eliza, «**bihotz-garbi** dena eta jokabide gardenekoa, bere bekatua ezkututzen ez duena, ezta sustatzen ere ezkutukeria eta anbigutasuna, zeren Jesusen egian ibiliko baita. Egun batean Jainkoa ikusiko du.

Zorionekoa Eliza, «**bakearen alde**» eta gerlaren aurka borroka dagiena, bihotzak bateratzen dituena eta adostasuna ereiten, zeren munduak ezin eman duen Jesusen bakea kutsatuko baitu. Jainkoaren alaba izango da.

Zorionekoa Eliza, **justizia** dela-eta etsaitasuna eta pertsekuzioa jasaten duena, martiritzari berari uko egin gabe, zeren biktimekin negar egiteko gai izango baita eta Jesusen gurutzea ezagutuko baitu. Harena da Jainkoaren erreinua.

Gaur egungo gizarteak zoriontasunen espirtu honek markaturiko kristau-elkarteak ezagutu beharra du. Ebanjelio-izaerako Elizak bakarrik izan lezake agintea eta sinesgarritasuna, gaur egungo gizon-emakumei Jesusen aurpegia erakutsi ahal izateko.